

MUko Kirol Zerbitzuak antolaturiko IX. argazki lehiaketak baditu irabazleak

04/06/2010

IX. edizioa dugu aurtengoa eta "talde kirolak" lelopean bost partaide aurkeztu dira. Argazki onenarentzako 100€ eta bilduma hoberenarentzako 200€ zeuden jokoan eta aurtengo edizioan GEP eta HUHEZIRA joan dira hurrenez hurren. Irabazleak erabakitzeke orduan, garbi gelditu behar da ez dela kalitate tekniko eta artistikoa baloratu, gaia islatzeko orijinaltasuna eta kirol zerbitzuarentzat argazkiek daukaten erabilera baizik. Horretaz aparte, hiru finalistak zeintzuk izan diren Kirol Zerbitzuak daukan blogean bozkatu ahal izan da. Guztira 62 bozka egon dira, 32 argazki hobereana erabakitzeke eta 30 berriz, bilduma hoberenarentzako.

Honenbestez, ikuslegoaren usteta, hiru argazki hoberenak hauek izan dira:

- 1.- Alain Martinen "Zero gravity" argazkia.
- 2.- Alain Martinen "Martini unea" argazkia.
- 3.- Jokin Lenizen "Bion artean lortuko dugu" argazkia.

Hauetatik hobereana aukeratzeko ardura Kirol Zerbitzuak izan du eta guztiak paretsuak izan badira ere, gaiarekin hobekien egokitu den argazkia "Martini unea" dela erabaki du. Argazkian, udako ilunabar eder batean lagun talde bat hondartzan futboleant jokatzeko ageri da. Gazte hauek beraien kabuz elkartu eta talde kirol baten bitartez disfrutatzen ari direla transmititzen du argazkiak.

Bestalde, bilduma hoberenaren saria irabazteko finalistak hauek izan dira:

- 1.- Jokin Leniz-en "futbolariak".
- 2.- Iñigo Arriaran-en "errugbilariak".
- 3.- Amaia Uribarren-en "arrantzaleak".

Blogean ikusleek eman duten arrazoiak eta beste hainbat argudio kontuan izanda, Iñigo Arriaran bildumak eraman du saria. Bilduma honetan, Arrasate errugbi taldeko gaztetxoenen talde izaera ezin hobeto islatzen da eta horregatik irabazi du bilduma onenaren saria.

Azkenik, Kirol Zerbitzuak eskerrak eman nahi dizkie lehiaketara aurkeztu diren bost partaideei, beraiek gabe jardunaldi hau ez zelako posible izango eta baita bozketan parte hartu dutenei ere, beraien laguntzaz irabazlea zein den objetibotasun handiagoaz hautatzen lagundu dutelako.

Mila esker guztioi eta gogoratu datorren ikasturtean beste aukera bat izango duzuela kirolaren inguruko argazki lehiaketa bat irabazteko!!

